



BALIOZKO PROPOSAMENA:

Idea ona iruditu zaigu enpresa bat sortzea lehen hezkuntzako bosgarren mailan DBHko bigarren mailara arte dauden umeei haien etxeko lanetetan edo ikaskuntza prozesuan laguntzeko. Maila akademikoa hobetzen laguntzeko egin dugu, eta okerren duten irakasgaiarekin dituzten zalantzak argitzeko.

Nerabeak gara oraindik, baina hurrei laguntzeko gaitasuna dugu. Lau pertsona gara taldean, eta gutako bakoitzak bi ikasgaien ardura jasoko du. Abantaila handi bat dugu: guk hementxe emango ditugu eskolak, Lauaxetan, haurrek ez dute inora joan beharrik izango, orduan haientzako edo gurasoentzako askos erosoagoa izango da. Horretaz gain, guk egiten ditugun ariketak eskaintzen ditugu. Liburuan dituzun ariketak ez egiteko, guk fitxak egiten dizkiegu ariketa desberdinekin, hobeto ikas dezaten eta azterketarako prestatuago egon daitezen.

Mundu guztiak bukatzen ditu klaseak 16:30ean, eta gu 17:00etan hasiko gara, atsedeen pixka bat hartzeko eta goseak egonez gero jateko astia izan dezaten. Ordu eta erdiko klasea emateko asmoa dugu, baina haurrak denbora gehiago behar badu, dena delakoagatik, edo hurrengo egunean azterketa bat badute eta praktikatu nahi badute, ez dago arazorik denbora gehiago geratzeko.